

OÑATIKO UDALA ETA SAKRAMENTU SANTUAREN ANAIDIA
ELKARTE ETNOGRAFIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

BILDU DIRA:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, MANU EGAÑA CHOPITEA jauna, Sakramentu Santuaren Anaidia Elkarte Etnografikoaren (G55433676) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN **8699**W /Helbide soziala: Unibertsitate Etorbidea, 2).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

I.- Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.m artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Bere xede eta eskumenen garapenean (7/1985 Legearen 25.1 artikulua), Oñatiko Udalaren helburu nagusietako bat tokiko kultura eta jaiak sustatzea da; helburu sozial-kulturala duten elkarteentzako diru laguntzak bideratzea eta laguntza kultura eremu guztietara zabaltzea.

III. Diru laguntzei buruzko Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 2.1.c. artikuluan honako hau dio: diru laguntza moduan ulertzen da proiektu, ekintza, jarrera edo egoera finantzatuaren sustapena non onura publikoko edo interes sozialeko jarduera sustatzea helburu duten.

IV. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua dio (22.2.a atala) toki erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako diru laguntza nominatiboak zuzenean eman ahalko direla, hitzarmenetan eta diru laguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

V. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 28. artikulua dio hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

VI. Sakramentu Santuaren Anaidia Elkarte Etnografikoaren xede nagusietako bat Oñatiko Corpus Cristi eguna antolatzea da eta horren inguruan bizi den jarduera kulturala mantentzea eta sustatzea da.

VII.- Oñatiko Kultura Sailaren helburuetako bat, Herriko Kultur adierazpenaren arloan parte hartzen duten herriko sortzaile eta kultur eragile zein taldeekin elkarlana bilatzea eta sustatzea da.

VIII.- Bi erakundeen helburuak bat egiten dute eta hitzarmen honen bidez elkarlanean jarduteko konpromisoa berresten dute, herriko kultur ondarea sustatzen jarraitzeko asmoz.

IX.- Oñatiko Udalak, Sakramentu Santuaren Anaidia Elkarte Etnografikoari bideratuko dion diru laguntzak elkartearen eta udalaren arteko elkarlanean dauka oinarria. Bi erakundeen arteko lankidetzak funtsezkoa da Oñatin 2025eko Corpusak antolatu ahal izateko.

Aurreko guztia aintzakotzat hartuta, lankidetzak hitzarmen hau izenpetu da adierazitako klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmenaren honen xedea da:

.- 2025.urteko Corpus Cristi eguna antolatzeko eta horren inguruan bizi eta sortzen den jarduera kulturala mantentzeko eta sustatzeko gastuen finantzazioan laguntzea.

BIGARRENA.- Laguntzaren zenbatekoa eta kontu Saila.

.- Hitzarmen honen bostgarren klausulan adierazitako zereginak garatzeko helburuarekin, Oñatiko Udalak lau mila bederatziehun eta berrogeita hamar (4.950€) euro ordainduko dizkio Kofradiari diru laguntza zuzen eta izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den diru laguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2025 urteko Udal aurrekontuetan. Diru laguntza 0800.481.334.00.02 (336) 2025 partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da eta behar bezalako nahikoa kreditua du.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honen iraupena sinatzen den momentutik 2025ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

LAUGARRENA.- Diru laguntza emateko prozedura.

Oñatiko Udalaren diru laguntza era honetara ordainduko da:

.-Diru laguntza eskaera jaso eta onartzearekin batera bideratuko da (%100), hau da, lau mila bederatziehun eta berrogeita hamar euro (4.950 €).

BOSGARRENA.- Likidazioa eta epea.

Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

- a) Egindakoaren memoria laburra (Corpus eguneko jarduera).
- b) Izandako gastu-sarreraren laburpen-taula.
Horretarako, Oñatiko web orritik jaitsitako gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.(www.oñati.eus).
- c) Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.
- d) Epe muga: 2025ko abenduak 31, asteazkena, baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Hitzarmen honetan aurreikusitako diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe lotura duten gastuak aurkeztu beharko dira eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaieran baino lehen sortzen direnak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

SEIGARRENA.- Corpus eguneko prozesioa aurrera eramateko Kofradiaren zereginak:

Besteak beste, honako hauek izango dira:

a. Oñatiko Corpus eguneko prozesioa aurrera eramateko erantzukizuna :

- Prozesioan ateratzen diren irudien: zainketa, konponketa eta mantenu lana.
- Prozesioan ateratzen diren arropen: garbiketa, lisaketa eta zainketa lana.
- Corpus eguna bera aurrera ateratzeko koordinazioa eta kudeaketa lana.

b. Corpus egun bertako prozesioaren kudeaketa eta koordinazio lanak:

Corpus igandea da (2025eko ekainak 22), prozesioak eta dantzek protagonismo berezia hartzen dutena. Meza hasi baino ordu erdi lehenago, San Migel elizara eramaten dira prozesioan parte hartuko duten santuen irudiak, gordeta dauden ermitetatik edo kapiletatik. Meza amaituta, prozesioa hasten da santuen irudiak banan-banan elizatik ateraz. Santuen ostean apostoluak ateratzen dira.

Prozesioaren ibilbide guztian santuekin batera dantzariak eten gabe ibiltzen dira batetik bestera. Eta, amaiera emateko, Foruen plazan, udaletxe aurrean, dantza ikusgarriak egiten dituzte dantzariak.

ZAZPIGARRENA.- Betebeharrak Udalarekiko:

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromisu hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1. Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak

betetzen ez badira; bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37.artikuluari aurreikusitako kasuetan.

6.2. Diru kontuen ikuskaritza edo auditorioa egitera behartuta balego edo/eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baluke, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1c) eta f) artikuluen arabera).

6.3.Diruz lagunduko diren jarduerak guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatu beharko dira.

6.4.Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, Oñatiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu diru laguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko interesdunek administrazioaren esku jarritako datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako diru laguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada ; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

ZORTZIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret. Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin, eta behar diren ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatzen dute.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan,

Oñatiko Udalaren izenean,

Sakramentu Santuaren Anaidia Elkarte
Etnografikoaren izenean,

Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Manu Egaña Chopitea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025: Sakramentu Santuaren Anaidia Elkarte Etnografikoaren hitzarmena
CSV/EKS:	SINA737667c4-ea14-4213-ad99-bce31771d9aa